

# Ezpalak

JON TORNER

## Topaguneak nazioartean proiektatuko ditu film laburrak



KABLA, *Lo bakarrik*, *Musika*, *Berde*, *Egiatik gezurrezko bizitzara*, *Poema baten irakurketa* Euskal Herrian, *Bankuaren lapurreta* eta *P.D. Ondo ibili* filmak proiektatuko ditu Topaguneak Film Laburren VI. Zirkuituan. 47 emanaldik osatuko dute egitaraua eta, lehenengoz, zirkuitua nazioartera helduko da. Iragan astean, adibidez, Erroman eman zituzten euskarazko zortzi filmak, eta Bartzelonan, Parisen, Londresen eta Shangain ere ikusi ahal izango dira. Zirkuituari buruzko informazio gehiago

[www.topagunea.org](http://www.topagunea.org) webgunean aurkituko duzue.

## Bi Harriz Lau Xori jaialdiak 15. edizioa beteko du aurten

MIARRITZEKO Bi Harriz Lau Xori jaialdiaren 15. edizioa hila- ren 18tik 22ra bitartean egingo da. Ohi bezala, euskal kultura bultzatzea xede duen jaialdiaren baitan, hainbat ekitaldi izango dira: Mizel Theret koreografoaren eta Ertza konpainiaren dantza emanaldiak, dokumental laburren proiektzioa, Oreka TX-en ikuskizuna, Piarres Larzabalen *Ibañeta* antzerki emanaldia... Egitarau osoa: [www.biarritz-culture.com](http://www.biarritz-culture.com).

**Itziar Ruiz de Erentxun** izango da Arabako Arkeologia Museoko arduradun berria. Artearen Historian lizentziatua, Fournier Karta Museoko zuzendaria ere bada. Hala, Arkeologia Museoa eta Karta Museoa jasoko dituen Bibat eraikinaren arduradun izendatu dute. Amelia Baldeon zen gaur arte Arkeologia Museoko zuzendaria. Arabako Kultura diputatuak Baldeon jo du Iruña-Veleiako auziaren erantzulez, eta kargutik kendu du. Armen Museoko teknikaria izango da aurrerantz.

**Bakartxo Arrizabalaga** izango da Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte (EIZIE) lehendakari berria datozen bi urteetan. Oskar Aranaren lekukoa hartuko du.

**Jaime Rosales** zuzendari kataluniarraren *Tiro bat buruan* pelikula jaso du 2008ko filmik onenaren Fotogramas de Plata saria. Hautaketa egiteko, *Fotogramas* aldizkariak 42 kritikariren iritzia eskatu du. Euskal gatazka oinarri, forman eta edukian ausarta eta berritzailea da Rosalesen azken lana. Donostiako Zinemaldian estreinatu zen iaz, eta harrera gazi-gozoa izan zuen: ETAKidea (protagonista) humanizatzea eta elkarriketarik gabeko istorioa egitea izan ziren polemika handien iturri.



● **Kiti Cancel, Zirko Ttipia taldeko kideak Aizu! aldizkarian:** «Nire ustez, badago gauza bat zenbait adierazpenek, futbolak barne, komunean dutena: momentu batean, leku batean, jende multzo batek emozio bera sentitzea. Eta hori zirkuak ematen dizu, futbolak beste era batera ere ematen du, baina bideojokoek ez dute hori ematen. Eta nik uste hori, emozioak konpartitzea, oso garrantzitsua dela gizakiontzat (...) Krisi garaian, leku guztietan, zer edo zer soberan baldin badago, lehenengo gauza kultura izaten da. Luxuzko jarduera da, gizarteak ez du beharrezko ikusten. Orduan, biak jumeentzako antzerkia eta helduentzako] ateratzen dira kaltetuak».

● **Xabier Zabaltza historialari eta saiakera-egileak Eus-konews & Media agerkari elektronikoan:** «Agosti Xaho erromantiko bat zen. Ez zen intelektual bat, 'sentimental' bat baizik eta, beraz, ezin zaio pentsamendu egituraturik eskatu. Dena dela, kontu batzuetan izugarritzko aldeaz ira-

bazten dio Sabinori: tradizio liberalaren onarpenean, katolizismo atzerakoia ere kiko hausturan, euskara jatorraren erabileran, literaturaren eta folklореaren ezagutzan, Euskal Herri osoaren batasun-sentimendu garbian ('bizkaitarkeriarik' gabe, baina baita 'nafarkeriarik' edo 'zuberotarkeriarik' gabe ere)... Beste kontu batzuk baztertzekoak dira. Adibidez, Xaho heriotza zigorraren aldekoa zen eta Espainiaren mespretxuari dagokionez ere ez zen fin ibili (Xaho, azken batean, frantsesa zen)».

● **Jabi Elortegi zinema zuzendariaren hitzak jaso ditu Berriak:** «Badago jende bat euskal zinema ikusi nahi duena, eta nik uste dut zinema euskaraz jarrai dezakegunok 600.000 baldin bagara, eta 200.000 pertsonarengana iristen baldin bagara, nahikoa dela; Espainian egiten diren filmak ere ez dira askoz gehiagorengana iristen (...) Erakunde aldetik laguntza handiagoa egon behar dela uste dut. Orain, ez dago handiegirik. Ikusten da bost urtean lau film egin direla».

# Abarrak

MIKEL ASURMENDI

## Itsasoaren alaba koherentea

*Itsasoaren alaba* dokumentala

Zuzendaria: Josu Martinez.

Haize Goikoetxea Ugarte: *Itsasoaren alaba*.

HAIZE GOIKOETXEA UGARTE dugu itsasoaren alaba. Metafora ederra, herri honetako egungo historia irudikatzen du. Ederra bezain gogorra. Bitasunak osatzen du pertsonon izaera. Mikelek eta Izaskunek Haize gorpuztu zuten. Hodei eta Haize. Amak eta aitak. Aita eta itsasoa sinonimoak izaki kasuon.

Dokumentala ikusitakoan adierazgarria —eta argigarria— egin zait Haizeren aitaren (Mikel Goikoetxea, *Txapela*) jatorria hurbilagoetik ezagutzeko: aitzittaren eta amamaren familien arteko konponezinak gerra ostean. Mikelen gurasoek, anaiak eta arrebak txikitan pairatu zuten eskasia. Euskal familia bateko seme-alabak erdaraz hezitzea eta bizitzea...

Itsasoaren alaba ausarta da. Ausarta familiaren iragan gogorra ezagutzeko pausoa eman duelako. Gogortasun horretan gogorkeria hurbilagoetik ezagutu nahi

izan duelako, familiak jasandako gogorkeria hala nola aitak hautatutako gogorkeriaren bidea ezagutzeko adorea izan duelako.

Itsasoaren alabaren aitak ahularen indarkeriaren alde egin zuen. Hitzaren eta ekintzaren sinbiosia estaltzen egin zuen *Txapelaren* buruak. Ezagutu zutenen hitzetan, Mikel koherentziaren erdua zen, pertsona koherente.

Hurkoa hiltzea —edo erailteza, berdin dio— eta koherente izatea ba al da? Pertsonen hiltzaile eta askatzaile izan al daiteke aldi berean? Galderak dira. Eta galderek bizi beharreko erantzunak eskatzen dituzte.

Gure herriari ezbeharra pairatzea “egokitu” zaio, baita izateko beharrak alboko herriei ezbeharra pairaraztea “egokitu” ere. Baina behar eta ezbehar horietan ezin dugu pertsona ahaztu, pertsonok osatzen baititugu herriak.

Pertsona eta koherentea bitasun funtsezkoa zait, izan ahal izateko. Itsasoaren alabak hartutako bidea koherentea iruditzen zait herri honetazako koherentzia bilatze bidean. Berondeizula Haize!



## Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

INDEPENDENTZIA  
ASTERO IKUSTEN DA

Izen deiturak: .....  
 Helbidea: ..... Posta kodea: ..... Herria: .....  
 Herrialdea: ..... Jaioteguna: .....  
 N.A./I.F.K.: ..... Tel./Faxa: ..... e-posta: .....  
 Ordainketa mota: ☐ Bankuz  
☐ Taloiez  
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647  
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik  
 Banku edo aurrezki kutxa: .....  
 Titularra: ..... N.A./I.F.K.: .....  
 Titularraren helbidea: ..... Titularraren telefonoa: .....  
 Entitatea: ..... Sukurtsala: ..... K.D.: ..... Kontu zenbakia: .....  
 Data: ..... Sinadura: .....

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria —Gipuzkoa—**

### Aukeratu ongi-etorri oparia



“Kirolaz badakit”  
mahai-jolasa



“888 txiste”  
liburua



“Txoriak txori”  
lamina



%25eko beherapena  
ikasle bazara

**Urtebeteko harpidetza:**  
2009ko prezioak

**135 €** Hego Euskal Herrian  
**165 €** Iparr Euskal Herrian

**argia**